



Zuzendaritza berria Esku aldaketa, elkarrekin

Gurasoen txokoa Ikastolaren eguna
Ikasleen txokoa Ohorezko matrikulak



jakintza ikastola

agenda



MANU OLANO
Jakintza ikastolako zuzendaria

Argazki berria

Iritsi da ekaina, nabari da nekea, eta baita opor usaina ere. Edo zehatzago esateko, oporren premia sumatu daiteke Jakintzako ingurumarian. Ez dira sentsazio berriak. Nola izango dira ba, Jakintza ikastolak 45 urte bete dituen honetan? Ikastolentzat, eta nola ez Jakintzarentzat, urteak igaro arren, beti sortzen dira erronka berriak, eta ez dago zalantzarik, seinale ona dela hori. Alde batetik, bizirik dagoen komunitate bat badagoela adierazten digu, eta bestetik, erronkei aurre egiteko behar den

gaitasuna eta ilusioa ere bizirik dela.

Bizi garen gizartean ez da nahikoa irautea irauteagatik, indartsu irauteko biziberritzea da kontua eta horixe egin dugu Jakintzan. Urte askotan ikusi duzuen argazkiaren orde, argazki berria izango duzue hurrengo alean, eta ziur nago Jakintzaren onurarako izango dela. Hastera doan ibilbidean zorterik onena Amaiari. Gaizki esanak eta eginak barkatuko dituzuelakoan, besarkada bat eta mila esker Jakintzari.

APIRILA

LEHEN HEZKUNTZA
Agenda 21eko foroak, Udal ordezkariekin urteroko bilera.

DBH

Agenda 21eko foroak, Udal ordezkariekin urteroko bilera.

MAIATZA

HAUR HEZKUNTZA
Maila guztiak: Haur Hezkuntzako goi mailako modulua egiten ari direnak 7 *anxumeen* antzerkia egitera etorri ziren. Maila guztiak: udaberriko jaialdia. 2 urtekoak: azokara fruta erostera. 3 urtekoak: Aramara irteera. 3, 4 eta 5 urtekoak: ikastolako baratzerako letxugak erostera. 5 urtekoak: Zabalegi baserrira egunpasa.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Oiasso erromatar museora bisita. 1 eta 2. maila: Olinpiada Txikia ikastolako jolaslekuan. 2. maila: Pagosara bisita ogia egiteko prozesua ikustera. 5 eta 6. mailakoak: bertso saioa Herri Antzokian.

EKAINA OROKORRA

Ikastolaren eguna.

HAUR HEZKUNTZA

Ikasle guztiak: irteera.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. maila: kurtso bukaerako irteera Legazpiko Mirandaolara. 1. maila: Okorroko parkera bisita *Naturaren Sekretuak* aztertzea. 2. maila: Mirandaolako parkera bisita. 3 eta 4 maila: Sastarrain baserri eskolara irteera. 5 eta 6. mailakoak: Zuhatzara irteera.

DBH

1. maila: Arabako Villañanera irteera. 2. maila: Zaraitzu bailarako Otsagabira irteera. 3. maila: egun bateko irteera kostaldera. 4. maila: irteera Parisera.

Irailean noiz?

Udako opor luzeak tarteko, urruti sumatzen dugu iraila. Atsedendialdiaren ondotik irailan itzuliko gara, eta ondoko taulan ikus dezakezue etapa bakoitza noiz hasiko den.

ETAPA	DATAK	ORDUTEGIA
Haur Hezkuntza	Irailaren 9tik 20ra	Goizeko 9:00etatik 12:30era
	Irailaren 23tik aurrera	Goiz eta arratsalde
Lehen Hezkuntza	Irailaren 9tik 20ra	Goizeko 9:00etatik 12:30era
	Irailaren 23tik aurrera	Goiz eta arratsalde
DBH	Irailaren 6an aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 9tik 20ra	Goizeko 8:30tik 14:30era
	Irailaren 23tik aurrera	Goiz eta arratsalde
DBHO	Irailaren 13an aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 16tik aurrera	Ordutegi arrunta

NUEVA FOTOGRAFIA

Con la llegada del mes de junio, en Jakintza ikastola se nota el cansancio, y como es normal, se notan ganas de coger las vacaciones. No es una sensación nueva en nuestro entorno. ¿Cómo si llevamos 45 años trabajando? Con el paso de los años surgen nuevos retos, una buena señal sin duda.

En la sociedad actual no es necesario seguir por seguir. Al contrario, es imprescindible renovarse para ser más fuertes. Y eso es lo que hemos hecho en Jakintza. Después de muchos años observando la misma fotografía, en el próximo número encontraremos uno nuevo. Y estoy convencido que será positivo para la ikastola. Toda la suerte para Amaia en el nuevo reto, y muchas gracias a Jakintza por todo lo que hemos compartido estos años.

IKASTOLAREN EGUNA

Ekaina iritsi zaigu eta berarekin batera etorri zaigu ikastolaren eguna ospatzeko tenorea. Urteroko zita dugu. Zita garrantzitsua, hutsik egin ezin dugun horietakoa. Giro aparta egon zen, berrikuntza ugari tarteko. Baina onena programa osoa azaltzea izango da, horren arabera jakiteko egunak zer eman zuen.

Hasteko, Haur Hezkuntzakoak kalejiran abiatu ziren Barandiaran plazara. Han, DBHkoek eta ikastolako abesbatzak dantza koreografia eta abesti batzuk eskaini zizkiguten. Lehenengo eta bigarren mailakoak, bestetik, joku kooperatiboetan ibiltzeko parada eduki zuten. Hirugarren eta laugarren mailakoak, berriz, betiko jokuetan aritu ziren. Bost eta seigarren mailakoek euren aldetik, altxorraren bila jardun zuten.

Hori guztia bukatu ondoren, bazkari ederraz

gozatu genuen. Baina ez hori bakarrik, errepidea jendez bete zen Dj Bull-ek jarritako musikarekin

dantzatzeko. Ederki igaro genuen! Lerro hauetatik mila esker lanean aritu zineten guztioi.



OLINPIADA TXIKIAK JAKINTZAN



Olinpiar jokoak Grezian sortu zirenetik lau urtetik behin ospatzen dira munduko hiri ezberdinetan. Bada, Jakintza ikastolan lehen mailako ikasleek ere olinpiada txikiak ospatu dituzte.

Hasieran, kirolaren eta osasunaren ezagutzetan lan egin dute. Ondoren, talde lanean jokoak aukeratu (joko herrikoiak), lana egiteko prozedura erabaki, arauak argitu, baliabideak aurreikusitu, eta arduradunak izendatu dituzte. Guztia prestatu ondoren, aurrez izendatutako egunean eta jantzi eroso soinean dutela, entrenamendu xumea egin eta gero, 2. mailakoekin batera olinpiadak ospatu dituzte.

Izerdi patsetan, arratsalde bikaina pasa ondoren eta oso balorazio positiboa eginda, hurrengo olinpiaden zain geratu dira gure txikiak.

El 15 de junio fue una jornada importante en Jakintza, ya que se celebró el día de la ikastola. Como todos los años, hubo variedad de actividades: En busca del tesoro, juegos cooperativos... Maravilloso día que terminó, cómo no, con una comida que reunió a más 600 personas, entre risas y sudores, con nuevas ideas para desarrollar de cara al año que viene.

Los alumnos de segundo curso compitieron entre ellos en unas olimpiadas donde se lo pasaron en grande.

HOGEITA BOST URTE ONDOREN



Jakintza ikastolan aldaketa esanguratsua emango da datorren ikasturtean. Hogeita bost urtez ikastolaren zuzendaritzan jardun ondoren, Manu Olanoren azken egunak baitira hauek kargu horretan. Bere ordeztu, Amaia Ayerrak hartuko du ikastolaren lema. Baina pertsona aldaketa izango da batez ere, **“orain artekoari eutsi, eta aurrera egitea”** izango baita Amaiaen helburua. Jarraipen horretan, ordea, aldamenean izango du oraindik zuzendari den Manu, aldaketa ez delako egun batetik bestera gauzatuko. Elkarlanean arituko dira denbora batez.

“ Herentzia ona jasoko dut, ikastola tente eta indartsu dagoelako ”, dio Amaiak. **Ondo daki zailtasunak eta erronkak izango dituela bere ibilbide berrian.** Hala ere, sortzaile izateko garaia dela dio Amaiak, “ daukaguna edo gutxiagorekin aurrera egiteko ”. Berrikuntzari bide ematea eguneroko lanean, ez da erraza izango murrizketak etengabe aipatzen direnean, edo LOMCE legea inposatu nahi denean. Erronka berriei erantzuteko orduan, ikastolak dituen oinarri sendoak kontuan izan behar direla dio Amaiak. **“Oso baliagarriak eta egokiak**

direlako, eta horiek gabe noraezean ibiliko ginatekeelako”.

Zein dira aipatzen dituen zutabe horiek? Manuk hiru aipatzen ditu: **“Batetik, euskara eta euskal kulturaren taupada. Erreferente izan gara, eta horretan jarraitu behar dugu, konformismotik urrun”**, dio; bestetik, hezkuntzako metodologia berrien taupada azpimarratzen du; eta azkenik, kudeaketa ereduaren taupada. **“Herriari oinarrizko zerbitzua eskaintzen diogu, eta hori gure eredu eta kudeaketa propio bati esker soilik lortu dugu”.** Bide

BELAUNALDI ALDAKETA ZUZENDARITZAN



“Konturatzera” igaro zaizkio Manu Olano Jakintza ikastolako zuzendariari karguan eman dituen hogeita bost urteak. Orain baina, Amaia Ayerrak hartuko dio lekukoa, ikastolan eskarmentu luzea duen irakasle eta orientatzaileak. Proposamena sorpresaz jaso duen arren, postu berrira egokitzeko parada ere izango du, ordea. Izan ere Manuk trantsizio horretan lagunduko baitio.

Etorkizunera begira murrizketak eta LOMCE legearen balizko onarpenak zuzenean eragingo dio ikastolaren jardunari, baina azken hogeita bost urteetan egoera zailei aurre egin behar izan zaie. Beraz, aldaketak egon daitezkeen arren, ikastolen oinarriari eustea “ezinbestekoa” izango da.

horretan lan egin du ikastolak 45 urte luzez, “ eta mende erdiko historia ez da urratu besterik gabe” , dio Amaiak. Hori dela eta hiru oinarri horien gainean lan egin behar dela garbi dauka, nahiz eta jakitun den eguneraketarik ezean ikastola atzean geratuko dela. “Bide berriak landu beharko dira, baina oinarriak zeintzuk diren ahaztu gabe” , dio.

Gorabehera ugariko 25 urte

Manuk berak ere oinarri horien gainean egin du lan azken mende laurdenean. Ikastolara irakasle gisa iritsi eta urte gutxira hautatu zuen

zuzendari kargurako. 1988. urtea zen. Zortzi urtez zuzendari gisa lanean aritu zen Joxe Migel Amundarainen eskutik jaso zuen lekukoa, eta hogeita bost urteko ibilbide luze honetan gorabehera ugari bizi behar izan ditu ikastolaren baitan.

“ Lehen zailtasuna hasi eta segituan iritsi zitzaigun” . Hain zuzen ere, 1991. urtean Batxilergorako baimena lortzeko borroka hasi zen. “ Garai hartako hezkuntza erreformaren ondorioz, Batxilergorako baimena eduki ezean, eskolaren eskaintza 12 urtera mugatzen zen” . Hori dela eta, indar guztiak Batxilergorako baimena lortzera bideratu genituen ikastolan.

“ Hasi egin ginen, baina baimenik gabe” , oroitzen du. Urte gogorak izan ziren horiek Manurentzat, baina baita aberasgarriak ere. “ Ikuskaria etortzen zen bakoitzean gure errealitatea ezkututzen saiatzen ginen” , dio irribarre artean.

“Ekonomikoki, ordea, ahalegin handia izan zen, sekulako

“Orain arte ikasketak individualizazio prozesu bat izan du, eta orain sozializazioa da bidea”

AMAIA AYERRA

inbertsioa egin baitzen”. Egoera horretan hiru urte inguru egon zen ikastola, harik eta 1994an Batxilergoko baimena lortu, eta “ amasa hartu ahal izan ” zen arte.

Baina ordurako ikastolen mugimenduan hautsak harrotu zituen eztabaida emana zegoen Jakintza ikastolan. Hezkuntza publikora jauzi egin edo kontzertatu gisa jarraitzeko erabakia hartu behar izan baitzuen ikastolak 1993. urtean. “Erabaki zaila izan zen, eta amaiera are zailagoa”. Izan ere, gizartean haustura handia sortu zen, eta “ ondorioak mingarriak” izan zirela oroitzen da. Jakintzak kontzertatu gisa jarraitzea erabaki zuen, “25 urtetan lortutako eta sustraitutako eskola eredu administrazioaren eskutan desegingo zelako. Uste genuen ez genuela lortuko gure hezkuntza ereduaren oinarri nagusiak mantentzea”. Erabaki hori gehiago nagusiz hartu zen, baina bozketa aurreko astean Beasaingo ikastolak sare publikora salto egitea erabaki zuen, “ eta hori sekulako lurrikara izan zen guretzat” . Urte horrek gertaera hoberik ere



Jakintza ikastolako irakasle talde bat 1987. urtean



ekarri zuen. Tartean Villa Eugenia haur eskolako eraikin berriaren inagurazioa. Bere eraikuntzak inbertsio handia eragin zion ikastolari, baina ez zen bakarria izan. San Inazioko eraikina ere handitu egin behar izan zen Batxilergoko klase berrietara egokitzeko.

Beraz, inbertsio handiko urtea izan zenez, **Kilometroak antolatze**ko eskaera egin zuen **Jakintzak**.

Orduko oroitzapena gazi gozoa dauka Manuk, " aurretik lan bikaina egin zen arren, eguna iritsi zenean eguraldi negargarria egin baitzigun" . Beraz, espektatibak bete ez, eta etekin ekonomikoak ere ez ziren uste bezalakoak izan.

Kilometroak antolatu izanak ez zion bermatu **Jakintzari egoera ekonomiko zailari**

buelta erabat ematen, eta 1996. urtean egoera "kezkagarria" izatera iritsi zen. Egoerari buelta emateko irtenbide bila hasi, eta ikastolari izaera aldatzea erabaki zen: Sozietate Anonimotik, langile kooperatibara. Aldaketa horretan, ikastolako langileak egun batez langabezira joan ziren, eta ordainsari hori hurrengo egunean sortu zen kooperatiban kapitalizatu zuten. " Une horretan buruhauste nagusi bat itxi zen" , dio Manuk.

Goranzko ibilbidea

Egoera ekonomiko makurraren karga gainetik kenduta, hurrengo aroak positiboagoak izan ziren ikastolarentzat. 2002. eta 2005. urteetan **zilarrezko eta urrezko Q ziurtagiria** jaso zuen ikastolak hurrenez

hurren. " Ziurtagiriak lortzen lehen ikastola izan ginen, bai zilarrezkoa eta urrezkoaren esparruan" . Kudeaketari emandako saria izan zen, eta urte horietan zehar ziurtagiria lortzea jarri zuten helburu gisa langile guztiek. "**Urte horietan talde sena piztu zitzaigun denoi**", dio Amaiak. " Ez genuen prestigioa lortzeko egin, baizik sistematizazioa eta lan egiteko beste modu batzuk behar genituelako" , azaldu du Manuk. Kontuak kontu, ikastolari izen ona eman zion bi ziurtagiriak lortu izanak, "**bide batez bultzada eman zion eremu pedagogikoari**".

2005. urtetik aurrera, bestetik, ikastolan eraldaketa gehiago egon ziren. Izan ere, berriz ere inbertsio handia egin zen, eta kanpoko patio estalia, frontoi txikia, jangela berria, edo areto gela berria egin ziren San Inazioan.

Jakintza ikastolaren azken hogeita bost urteen historia borobiltzeko, 1996. urtean hasitako izaera aldaketa amaitu zen pasa den urtean.

" Hasieratik kooperatiba integrala egin nahi izan genuen, baina ez zen posible izan, kapitalizazioa gauzatzeko derrigor izan behar baitzuen langileen kooperatiba" . Orduz geroztik lortu nahi zen ezaugarria zen, azkenean lortu zena. Baina zertarako? Gurasoak ere juridikoki ikastolaren parte izateko, eta euren ahotsa arautzeko.

Une honetan ikastola **pedagogia eta metodologian sakontzen eta berritzen ari da.** Hau da, gela barruko zeregina funtzio berrietara egokitzen.

" Orain arte ikasketak indibidualizazio prozesu bat izan du, eta orain sozializazioa da bidea. Une honetan hori da erronka" , dio Amaiak. Etorkizunera begira, lan ildo berriak izango ditu berak ere.



El relevo a una trayectoria de 25 años, de manos de una nueva generación

Se avecina un cambio de ciclo en Jakintza ikastola. Después de haber dirigido la ikastola durante 25 años, Manu Olano está ante sus últimos días en el cargo. Para relevarle en el mando, Amaia Ayerra cogerá la tutela de la ikastola. Pero no habrá cambio en el modelo, “seguiremos manteniendo el rumbo actual, e intentaremos seguir adelante”, según Amaia. Pero el proceso de cambio no será de la noche a la mañana, ya que Manu seguirá trabajando con ella para que el cambio de mando sea gradual.

“Recibo una buena herencia, porque la ikastola esta fuerte”, dice Amaia. Aún así, sabe que tendrá dificultades. No podemos olvidar la influencia de los recortes y la intención de implantar la LOMCE. Amaia asume que tendrá que buscar nuevas fórmulas para adecuarse a los nuevos tiempos. Pero no esa adaptación no deberá sobrepasar los fundamentos de la ikastola. ¿Y cuáles son estos fundamentos? Manu los recopila en tres puntos: “Por un lado, hemos sido referentes en cuanto al euskera y a la cultura vasca, y hay que seguir en ese camino”; por otro lado, cita la metodología de la educación; y por último el modelo de gestión. “Ofrecemos al pueblo un servicio básico, y eso es debido al modelo de escuela que son las ikastolas”. Sobre esos cimientos ha trabajado Jakintza ikastola durante 45 años, “y el trabajo de medio siglo no se sigue por seguir”, comenta Amaia. Por eso, cree que hay que trabajar sobre esos pilares principales.

25 años de altibajos

Durante el último cuarto de siglo, la ikastola también ha trabajado sobre esos principios. Manu llegó a Jakintza como profesor, y a los pocos años le eligieron como director, en el año 1988, tomó el relevo de Joxe Migel Amundarain. En ese transcurso la ikastola ha tenido altibajos, tal y como recuerda. Al poco de entrar, en el año 1991, la ikastola empezó a luchar para conseguir la autorización del Bachillerato. Y comenzaron impartiendo clases, pero sin autorización. “Fue una inversión importante, un gran esfuerzo”. Al final tres años después se consiguió la licencia. Pero para entonces el movimiento de las ikastolas vivía un gran revuelo. Era la época de decidir si seguir como escuela concertada, o pasarse a la red pública. Al final se decantó por continuar en la red concertada, “porque pensábamos que el modelo que habíamos germinado durante tantos años se diluiría dentro de la administración”. En ese año 1993, la ikastola tuvo que hacer frente a grandes inversiones. Por un lado el edificio de Villa Eugenia, y por otro la ampliación de San Ignacio que, una vez conseguido la autorización del Bachillerato, necesitaba más aulas. Con esos gastos, la ikastola pidió organizar el Kilometroak, del cual Manu tiene un recuerdo agrí dulce. “Previamente se hizo un gran trabajo, pero cuando llegó el día, nos hizo un tiempo lamentable”. Por esa razón, no se cumplieron con las expectativas, y tampoco se consiguió el beneficio económico previsto. En consecuencia, la situación económica de la ikastola seguía siendo difícil, y en el año 1996 llegó a ser “preocupante”. Para darle la vuelta a la situación, se le cambió la identidad a la ikastola, de Sociedad Anónima, a Cooperativa de trabajadores. Por un día la ikastola cerró, y el paro obtenido por los trabajadores lo capitalizaron en la nueva cooperativa. De esa manera, Jakintza dejó atrás la mala situación económica.

Camino ascendente

Una vez superadas las dificultades económicas, el camino fue más fácil para la ikastola. En los años 2002 y 2005, obtuvo el reconocimiento Q de plata y oro respectivamente, a la buena gestión. En esa época se logró una compenetración de los trabajadores con el proyecto, recuerda Amaia, “y eso fue más positivo que el prestigio de lograr el galardón”. Los años venideros fueron de grandes inversiones otra vez, ya que se construyeron en San Ignacio un patio cubierto, un frontón pequeño, un nuevo comedor y un salón de actos. Pero todo este trayecto no se puede completar sin mencionar la nueva identidad corporativa que logró la ikastola el año pasado: la cooperativa integral. “En 1996 nuestro objetivo fue el de lograr esa identidad, pero no se pudo, ya que a las cooperativas capitalizadas no se les da dicha opción”. Pero al final se consiguió, y de esa forma los padres son parte de la ikastola jurídicamente.

En este momento en la ikastola se está profundizando en la innovación e implantación de nuevas metodologías. “Hasta ahora se ha individualizado el aprendizaje, y ahora el camino es la socialización. En este momento ahí tenemos el reto”, matiza Amaia. En el futuro, ella también tendrá nuevos retos para desarrollar.

OHOREZKO MATRIKULAK...



Garazi, Maddalen eta Jone ditugu aurtien batz besteko nota " bikain" mailakoa lortu duten ikasleak. Nahiz eta Jakintza ikastolari ikasle kopuruagatik matrikula bakarra dagokion, hirurak omendu nahi izan ditugu. Eurekin bildu gara zer amets eta proiektu dituzten jakiteko asmoz.

Urte gutxi barru izango ditugu mediku bikaina (Maddalen), lege emakume zintzoa (Jone), eta, Garazi? Azkenean fisikaria?

Garazi: Egia esan oraindik zalantza asko daukat. Hainbat gogoeta egin dut horren inguruan, eta zientziak gustuko izan arren, ez nago ziur. Nota onak edukitzeak duen desabantailarik handiena horixe da: esparru handia eskaintzen dizula. Zer ikasi behar dudan argi ez badaukat ere, non amaitu nahiko nukeen badakit: irakaskuntzan. Horretarako bide asko daude, ordea.

Maddalen: Beti gustatu izan zaizkit zientzia arloko gaiak eta hauen artean biologia. Medikuntza oso interesgarria iruditzen zait; izan ere, gure gorputzak nola funtzionatzen duen ikasten duzu, gaixotasunak zerk eragiten dituen...

Jone: Niri, bestetik, txikitatik gustatu

izan zait legeen inguruko mundu hori. Dena den, zalantza asko eduki dut erabaki aurretik, eta oraindik ez nuke jakingo esaten zehazki zertan lan egin nahi dudan. Zuzenbidearen arloa nahiko zabala da, eta hori ikusirik, azkenean bide hori aukeratzea erabaki dut.

Zein da batz besteko " bikain" hori lortzeko errezeta?

Garazi: Bide finko zehatzik ez dago. " Bikaina" lortzeko gakoa ondo antolatzean eta egunean eguneko egitean oinarritzen dela esango nuke. Nik asko erabili dudan esaldietako bat honako hau izan da: " Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna". Saiatuz gero nahiko emaitza onak lortzen dira.

Maddalen: Argi dago lana egin behar dela. Garrantzitsua da ondo antolatzea eta dena azken momentura arte ez uztea.

Jone: Lan egin behar denean denbora aprobeztatzearekin nahikoa da nire ustez, eta ongi antolatuz gero, urte osoa ikasten pasa beharrik ez dago. Arreta jartzea da garrantzitsuena.

Baikor ikusten zaituztet eta ilusioz beteak. Hala ere, jakin nahi nuke

hemezortzi urteko gazte batek zer dioten behin eta berriro krisiaren aipamenak entzutean.

Garazi: Krisia guztion ahotan dabilen gaia da. Lan munduan etorkizuna ilun dago, baina gauzak datozen bezala onartzen ikasi behar dugu. Egoerak hobera egingo duenaren itxaropena daukat, eta guk ikasketak amaitzerako krisia ere amaitzea espero dut.

Maddalen: Krisi entzutearekin burura etortzen den hitzetako bat langabezia da. Izugarria da gazte langabetuen kopurua Euskal Herrian, eta asko kanpora joan dira lanera. Guri ere agian tokatuko zaigu hori; hala ere, esperantza dut guk karrera amaitzerako egoerak hobera egingo duela.

Jone: Ahalik eta era positiboenean begiratu behar zaio etorkizunari. Zaila izango da lana bilatzea, horregatik kanpora irteteko prest egon beharko gara. Dena den, egoerak hobera egitea espero dut.

Bi urtez geroztik ikastolan. Hegan egiteko irrikitan? Zein dira zuen planak?

Garazi: Plan finkorik ez dut egia esan. Momentuan momentukoa, eta etorri behar duena etor dadila. Orain burua oporretan daukat eta ez naiz etorkizunari buruz gogoeta egiten hasi.

Maddalen: Badut unibertsitatera joateko gogoia, han jende berria ezagutuko dugu eta gainera astean zehar ez naizenez etxean egongo, nire bizimodua zertxobait aldatuko da. Baina ikastola uzteak pena ere ematen dit; izan ere, urte asko eta momentu on ugari igaro ditugu hemen. Epe luzerako planik ez daukat, epe laburrera, medikuntzan sartzea da, eta gero gerokoak.

Jone: Unibertsitatera joan eta esperientzi berri bat bizitzeko garaia heldu zaigu, eta beldur pixka bat ere ematen duen arren, ilusio handia dut garai berri honi hasiera emateko.

Aunque la ikastola Jakintza sólo tiene la posibilidad de otorgar una matrícula de honor por la cantidad de alumnos que tiene, este año Garazi, Maddalen y Jone han realizado suficientes méritos para lograrlo. El siguiente curso los tres seguirán su proceso educativo en la universidad. Maddalen opta por medicina, Jone a derecho, y Garazi aunque todavía no lo tenga claro, tal vez se decante por física. A pesar de la crisis que azota la economía, y su consiguiente cifra de desempleados, las tres se muestran optimistas. "Espero que para cuando terminemos nuestras carreras haya finalizado la crisis", dice Garazi. Aún así, no tienen problema alguno para irse al extranjero. "Tal vez nos toque ir", matiza Maddalen. De todas formas, las tres se muestran ilusionadas con la nueva etapa que les espera el próximo curso.

...ETA BATXILERGOKO SARI BEREZIAK

2012-2013 ikasturtean, batxilergoko hamabost sari berezi banatuko dira EAEn. Bertan parte hartu ahal izateko, ikasleek batxilergoko bi ikasturteetan batz besteko gutxieneko nota 8'75ekoa lortu behar dute.

Batxilergoko sari berezia jasotzen dutenek egiaztagiria jasoko dute. Gainera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatzen duen bidaia-programan parte hartu ahal izango dute, eta ingelesezko ikastaroak atzerrian egin.

Gurean, Garazi Idiakez, Maddalen Erauskin, Jone Agirre eta Uxue Garmendia dira aurkezteko aukera duten ikastolako lau ikasleak.



GURE NESKA TXAPELDUNAK

Maiatzaren 25a egun bikaina izan zen gure ikastolako DBH 2ko neskenentzat; izan ere, emaitza apartak lortu zituzten gure atletek Euskadiko eta Espainiako probetan.

Ane Torres pisu jaurtiketan bikain aritu zen Malagan jokatu zen Espainiako kadete mailako txapelketan eta urrezko domina lortu zuen, 12 metroko jaurtiketarekin. Euskadiko eskola arteko taldeko txapelketan Jakintzako neskek lortu zuten garaipena.



UDABERRIKO JAIALDIA

Urtero bezalaxe, aurten ere Haur Hezkuntzakoek udaberriko jaialdia ospatu zuten maiatzaren 31n. Dantza eta giro ederraz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek.



ORDIZIAKO MAKETA



Gure herria ezagutzeko asmoz, Xangok eskainitako proiektu proposamena egin dute 5 urteko ikasleek. Kalera egindako irteeretan eraikuntza interesgarrienak bisitatu zituzten, baita pertsonaia famatuen jaiotetxeak, eta estatuak ezagutu ere.

Jasotako informazio guziarekin gure herriaren maketa eder bat egin zuten.

Las alumnas Garazi Idiakez, Maddalen Erauskin, Jone Iturrioz y Uxue Garmendia optan a los premio especiales de Bachillerato que otorga el Gobierno Vasco.

Ana Torres se ha proclamado campeona de España en lanzamiento de peso. Las alumnas de Jakintza también han realizado un estupendo campeonato de Euskadi.

Con el fin de conocer mejor nuestro pueblo, los alumnos de cinco años han visitado Ordizia, para luego realizar una maqueta que recoja los detalles que han observado.

Como ya viene siendo habitual, los alumnos de infantil han realizado el festival de primavera.



GURE BIKIAK EITB-N



Bikien arteko harremana azken aldian denon ahotan dabilen kontua da. Izan ere, harreman hau estua eta berezia izan ohi da. Eztabaida ere izaten da, gehienetan, gela desberdinetan banatzen dituztelako ikastolan hasten direnean. Harreman hori gertuagotik ezagutzeko gure ikastolan izan ziren EITBkoak eta 4 urteko Maitane eta Josu bikiak, euren gurasoak eta bietako baten andereñoa den Maitane Terradillos elkarrizketatu zituzten.

IRRATSAIOETAN TREBATZEN

Unitate Didaktiko polit bat eduki dute oraingo honetan 2. mailako ikasleek. Irratsaioaren emisioa proiektu gisa hartuta, lan ezberdin ugari egiteko aukera izan dute. Hala nola, abestiak hautatu, albisteak idatzi, ipuinak irakurri eta abar. Irratsaioarako gidoia adostu ondoren,

testuak zuzendu, ardurak banatu eta materiala lortuta, grabazioari ekin diote. Etxeetan ere emisioa entzuteko aukera izan dute Potto irradian FM 107.5 sintonian.

Prestaketa lanetan ziharduten bitartean, gurasoek eskolaren bizitzan parte

hartzeak duen eragin positiboa ikusita, talde bat bertan izan da irrati-telebistako grabazioaren nondik norakoak azaltzen. Izan ere, afrikar esaera zahar batek dioen bezala: "Haur baten heziketa tribu osoaren lana da" Ezin uka umeen motibazioan izan duen eragina!



ENERGIA JASANGARRIA

Jakintzako hezkuntza komunitatea ingurugiro arazoez kezkatu dago. Hori horrela, Eskola Agenda 21 programaren bidez urtero lan egiten dugu inguruan antzematen ditugun arazoei aurre egiteko.

Seigarren ikasturtea dugun honetan energia jasangarriaren gaia landu dugu, bai ikastetxeko egoera energetikoa aztertuz, zein energiaren arazoak eta alternatibak landuz. Era horretan, herriko egoera zein den aztertu dugu, herriko diagnostikoa eginez.

Diagnostiko hori gauzatzeko, hainbat irteera egin dira herrian zehar, inkestak ere egin ditugu, eta udalerriri zein eskualdeko datuak eta informazio ezberdinak aztertu ditugu.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek kaleetan zehar zein energia mota erabiltzen den aztertu dute, espaloiak, kableak, bizikletak, kotxeak etabar. Bigarren zikloko ikasleek, bestetik, herriko argiteria eta semaforoak behatu dituzte. Hirugarren ziklokoek energia berriztagarrien instalazioak behatu dituzte. Eta azkenik, DBHko ikasleek udalerriko energia kontsumoa aztertu eta herritarrek energia aurrezteko dituzten ohiturak arakatu dituzte.

Hori guztia aztertu ondoren ateratako ondorioak udaletxera eraman dituzte, eta egoerari aurre egiteko proposamen zerrenda luzea aurkeztu dute bertan, udalak azter dezan.

ANTZERKIA

Gure 6. mailako neska-mutilak buru belarri dabilta antzerki lanetan. Talde bat *6. maila bukatu dut* izeneko antzezlanari ari dira prestatzen. Bertan, bi urtetik hasi eta 6. mailara iritsi arte izandako gorabeherak adierazten saiatu dira era umoretsuan.

Beste taldeak, berriz, *Hollywood-eko izarra izan nahi dut* antzezlanari aukeratu dute jolasteko. Makina bat komeria gertatuko zaizkie, hamaika casting pasa beharko dituzte, eta iritsiko al dira izar izatera?

Biak ala biak bikainak dira eta ez zaie umorerik falta izan. Emanaldi batzuk eskaini dituzte jadanik. Zuk ez duzula ikusi? Mugi, ea hurrengo harrapatzen duzun! Merez du eta!

Un equipo de EITB ha estado en la ikastola para analizar el tema de los gemelos. Para ello, han entrevistado a nuestros gemelos Maitane y Josu, a la profesora Maitane Terradillos, y a los padres de los dos niños.

Nuestros alumnos de segundo curso han estado conociendo el mundo de la radio. Para ello, han estudiado cómo redactar una noticia, una historia, o qué música escoger para cada situación. Aparte de ello, los padres que trabajan ese ámbito les han enseñado algunos trucos para la radio.

Hace varios años desde que en la ikastola Jakintza estamos trabajando con las energías sostenibles. Como en anteriores casos, los alumnos de primaria y ESO han analizado la situación de Ordizia en cuanto a este tema, y han llevado sus conclusiones al ayuntamiento, para que pongan en marcha algunas de sus propuestas.

Los alumnos de sexto curso han realizado varias funciones de teatro, dignas de disfrutar. Con sus obras hemos tenido la oportunidad de pasarlo en grande.

irteerak

Ekosistema aztertzen

Ekosistemaren kontzeptuaren ideia nagusia da izaki bizidunek inguruan duten elementu fisiko bakoitzarekin elkarrekintzak sortzen dituztela.

Ekosistema ezberdinak, gertukoak zein urrutikoak lantzen ari dira hirugarren mailatik seigarren mailara bitarteko ikasleak. Amazonia, Sabana, Basoak, Baserriak, Monografikoak, Ingurukoak... Era guztietaiko ekosistemak aztertzen ari dira taldeka.

Haiengana hurbiltzen bazara, hor ikusiko dituzu batzuk muralak egiten, besteak lap book-ak, edo beste batzuk Bixkor barraskiloari ingurune egokia aurkitzen.

Guztiak ari dira lanean zein baino zein hobeto.



Parisera ikasbidaia

Ikasturte amaieran ohikoa denez, bidaia bat antolatzen da, eta ikasturte honetakoa berezia da. Horrela hau, luzaroan elkarrekin egindako urteei agurra eman eta amaiera ederra izatea du helburu.

Aurtengoan gure begirada Europa aldera jarri dugu, eta Paris ezagutzeko asmoa izan dugu. Bidaia honetan Futuroscope-n eta Eurodisney-en ederki pasatzeaz gain, beste ekintza ugari ere egin ditugu, hala nola, Bateaux Mouches batean Senna ibaiaren zeharkaldia, Orsay museora bisita, Eiffel Dorrera igo... Eta nola ez, pausoz pauso Pariseko kale eta giroaz gozatuz, urteetan ikasitako ingelese eta frantsese zuzenean praktikan jartzeko aukera izango dute gure ikasleak.



1983an jaiotakoak Ximon irakaslearekin.